*Iparrera begira jarri gara AMALURREN.* Lurralde hotz eta basatiak, negu luze eta ilunak, muturreko paisaiak, biziraupena kultura bihurtu duten biztanleen lurraldeak. *Ipar Handiak* bildu du gure arreta.

Lurralde hauek bertatik bertara ezagutzen dituenak itxuraldaketa moduko bat jasaten du. Hotza eta basatia dena erakargarri bihurtzen da geografikoki gainezka egiten duen lurralde hartan; neguko ortzi-muga misteriotsuak arima elikatzen duten ortzi-muga izpiritualak bihurtzen dira aurora borealaren zaintzapean; paisaia itzela da, bai, baina gauzarik txikienek ere badute lekua hango naturan; eta bertako biztanleek abegikortasuna dute beren kulturaren eredu eta ikur.

66° 33': kontuan har dezagun latitude hori. Artikoko atea zabaltzen digun lerroa da, mundu bat beste batean, irudimenari zabaldutako eremu bat. Esfortzu txiki bat egin dezagun. Utz ditzagun alde batera lurralde honi buruzko topikoak: sar gaitezen mugagabeko eremuetan, erakusten duena baino gehiago ere baden lurraldea ezagutu dezagun, eta ezagutu ditzagun hango biztanleak, etorkizuneko belaunaldiei irribarrearen genea uzteko bizi eta lan egiten duten horiek. Hauxe da AMALURREK proposatzen duen erronka.

Ongi etorri.

*AMALUR pone rumbo al Norte.* A tierras frías y salvajes, de inviernos largos y oscuros, de paisajes superlativos en los que el término medio no existe, a territorios poblados de gentes que hacen y han hecho de la supervivencia, cultura. En definitiva, la brújula nos señala el *Gran Norte*.

Pero lo maravilloso de estos territorios es que transforman a quien los conoce. Lo frío y lo salvaje se torna atractivo en una región de geografía apabullante. Los misteriosos horizontes invernales se convierten en horizontes espirituales que alimentan el alma en compañía de la aurora boreal. Los paisajes grandiosos dan paso a una naturaleza en la que lo diminuto y lo infinito conviven y sus gentes hacen de la hospitalidad santo y seña de su cultura.

Recordemos esta latitud: 66° 33´ norte. Es la línea, es el trazo imaginario que nos abre la puerta del Ártico. Un mundo dentro de otro mundo, un espacio abierto a la imaginación en la que los copos alfombran la tierra con un manto protector.

Hagamos un pequeño esfuerzo. Dejemos a un lado los tópicos que siempre acompañan a esta región que ofrece más de lo que manifiesta, adentrándonos de lleno en unas tierras sin límites, en la que sus pobladores viven y trabajan para dejar a las generaciones futuras el gen de la sonrisa. Este es el reto que propone AMALUR.

Bienvenidos.

"El sentido de la vida es cruzar fronteras"
*"Mugak gurutzatzea da bizitzaren zentzua"*

Ryszard Kapuscinsky

ÁRTICO




Diseinua: ZIRRIMARRA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

TOLOSAKO UDALA

# ÁRTICO
## LAS TIERRAS DEL NORTE



MAIATZAK
27, 28,
29, ETA 30

TOLOSA

www.cittolosa.com

**amalur**
**JARDUNALDIAK 08**
NATURA, BIDAIA ETA ANTROPOLOGIA

## Martes 27 Asteartea
## "BEGIZ BEGI; MIRADAS A CÁMARA"

Tolosako LEIDOR ARETOAN 20:00etan
(euskeraz. subtitulada en castellano)

Gordina. Zorrotza. Zuzena. Halakoa da Alberto Iñurrategik egindako azken filma. "Begiz begi-Miradas a Cámara", ez gaitu hotz utziko, zer pentsatu sortuko du guk nahi ala ez. Menditik datozen irudi idilikoetatik urrun, garatzeko bidean dauden herrialdetara egiten ditugun bidaiei buruzko gogoeta kritikoa da. Ez zaigu atsegina egingo, galderaz betetako lana bait da. Egungo mendizale eta bidaiari asko deseroso sentiarazteko moduko galderak. Albertok bere buruari egindako galderak akaso?. Erantzunik berriz ez du ematen, eta ez du eman nahi. Ez du ikasgaia izan nahi, ikasbidea baizik, **bidaiatzeko dugun moduaz gogoeta egiteko gonbitea da**. Agian, bizitzeko dugun moduaz gogoeta pizteko baliagarria ere. Ausarta benetan.



Hizlaria:
**Alberto Iñurrategi**

Mendizalea eta eskalatzailea. Konpromisoa eta estilo arinaren bultzatzaile mendian, sakontasuna eta hausnarketaren eragile bere ikus-entzunezko eta idatzizko lanetan. Hamalau zortzimilakoak osatzen munduko hamargarren gizasemea (1991-2002). Harenak dira *Gure Himalaya* eta *Hire Himalaya* liburu eta ikus-entzunezkoak, besteren artean.







## Miércoles 28 Asteazkena:
## "ARTIKOKO GIZARTE ETA KULTURA NATIBOEI BEGIRADA SOZIOANTROPOLOGIKOA"

KULTUR ETXEA 20:00etan (euskera)

Bi norabideko begirada. Historian zehar, Mendebaldeko gizarteak eta Artikoko gizataldeek elkar nola ikusi duten arakatzea da helburua. Bi kultura desberdinen topagunea da Artikoa, eta era berean bizimodu, diskurtso eta interes desberdinen lurraldea ere bada. Baliabide naturalen iturria, garapen ekonomikoa eta aurrerapena, bizimodu tradizionalak, kultur identitatea, natiboen mugimendu politikoak, ingurugiroa, paisaia,... Pertsonen bizitza baldintzatzen duten kontzeptu eta jarrerak mahai gainean jarriko ditugu oraingoan, Artikoan eta munduko hainbat tokitan ere islatzen diren egoerak. Talka kulturalaren azterketa proposatzen digu Kepa Fernandez de Larrinoak. Antropologiak eskaintzen digun hausnarketa.

Hizlaria:
**Kepa Fdez de Larrinoa**

Antropologia Sozialeko doktorea Londresko Ekonomia Eskolan, Antropologia Sinbolikoan Master of Arts London-Ontario Unibertsitatean (Kanada), eta gaur egun Antropologia Sozialeko irakaslea Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA). Ikerketa Proiektu desberdinetan hartu du parte eta lan ugari idatzi eta argitaratu ditu.

AURKEZLEA:
IOSU IZTUETA. BIDAIARIA.



## Jueves 29 Osteguna:
## "UNA VIDA EN EL ARTICO"

KULTUR ETXEA 20:00etan (castellano)

La Expedición Circumpolar, le permitió sumergirse en la cultura inuit y conocer los secretos del continente helado. Sin duda una de las grandes expediciones realizadas a Tierras Polares en el siglo XX. Durante 3 años recorrió en un trineo de perros y en kayak 14.000 kilómetros, entre Groenlandia y Alaska. A partir de ahí, más de 20 años de expediciones, vida y trabajo en los polos han convertido este territorio en su pasión, su sueño, y su segunda residencia.

Ponente:
**Ramón Larramendi**

Explorador, científico, divulgador e inventor. Colabora en el programa Al filo de lo imposible y es Director de Viajes Tierras Polares, del Centro de Estudios Polares y de la Fundación Polar Internacional en España.

PRESENTA:
JUANMA SOTILLOS. PERIODISTA.



## Viernes 30 Ostirala
## "VIAJE POR LOS PAÍSES DEL SOL DE MEDIANOCHE"

KULTUR ETXEA 20:00etan (castellano)

Territorio de hielo y fuego, cuna de culturas milenarias y escenario de una naturaleza en estado puro, hacen de Escandinavia un atractivo destino para los habitantes del sur de Europa. Y es que además de los volcanes islandeses y los extensos bosques lapones, aparte de los lagos de Finlandia y los fiordos noruegos, Escandinavia ofrece al viajero inquieto otros encantos más sutiles, como la mágica luz del sol de media noche, los paseos por el casco antiguo de Estocolmo o los cielos rasgados por la aurora boreal. Todo un mundo se abre a nuestros ojos de la mano de César Barba, editor de la colección de guías de viaje más completa editada en el estado español sobre este territorio.

Ponente:
**César Barba**

Viajero, periodista, colaborador habitual en revistas como El Mundo de los Pirineos, Altaïr, Viajes National Geographic o Lonely Planet y editor de Ecos Travel Books.

PRESENTA:
Ander Izagirre.
PERIODISTA Y VIAJERO.











